6 FACULTAD DE CIENCIAS ECONOMICAS Y EMPRESARIALES

Avda. L. Aguirre, 83 / Parque de Sarriko

Jesús Rafael Basterrechea

1962



En este proyecto Basterrechea, en su madurez profesional, se aleja del modelo de edificio compacto («block house») que había estado presente hasta entonces en la arquitectura de centros educativos –en la Escuela de Magisterio (D20) sin ir más lejos–. Opta por un concepto más orgánico ya experimentado por él mismo en la Escuela de Ingenieros (F2) años antes.

El edificio se encuentra bien asentado y en completa relación con el verde parque que lo rodea, disponiéndose incluso el ala de aulas escalonadamente, adaptándose a la topografía del terreno. Apoyado en criterios linguísticos racionalistas, Basterrechea consigue en esta obra una impecable claridad compositiva y constructiva, mediante la disposición volumétrica y la utilización del ladrillo visto como material básico.

Proiektu honetan Basterretxeak, profesional mailan heldutasuna lortua zuela, ordura arte hezkuntzarekin lotutako eraikinetan –Magisteritza Eskolan (D20) bertan esate baterako– agertutako egitura konpaktuaren eredua baztertu egiten du («block house»). Kontzeptu organikoagoa aukeratzen du, urte batzuk aurretik Injeniaritza Eskolan (F2) izandako esperientzia bera moldatuz.

Eraikina inguruko parkeko berdegunean era egokian lekututa eta berarekin hertsiki lotuta dago, ikasgelen gunea bera ere mailakatuta agertzen delarik, zoruaren topografiara moldatuz. Irizpide linguistiko arrazionalistak oinarritzat hartuz, Basterretxeak argitasun konpositibo eta konstruktibo paregabea lortzen du obra honetan, konposizio bolumetrikoari esker eta oinarrizko materialtzat begibistako adreilua erabilteagatik.



PLANTA BAJA / *BEHERENGO SOLAIRUA*

La obra presenta una clara y rápida lectura a través de la asociación inmediata entre su articulación interior y la formalización de los distintos cuerpos al exterior. Accesos y hall, biblioteca, aulas, despachos, salón de actos, etc, reciben un tratamiento diferenciado pero fluido a la vez, tanto en planta como en alzado, combinando eficazmente la funcionalidad, por un lado, y la voluntad compositiva, por otro.

En la actualidad, la Facultad se encuentra en proceso de ampliación.

Eraikinaren barneko artikulazioaren eta kanpotik begiratuta atal desberdinek erakusten duten formalizazioaren arteko batbateko loturaren bidez argi eta garbia da obraren egitura. Sarbideak eta halla, liburutegia, ikasgelak, despatxuak, ekintzaretoa, e.a., bakoitzari berezko trataera dagokio baina aldi berean guztien arteko lotura nabaria da, bai plantan zein altxaeran, alde batetik erabilgarritasuna eta bestetik asmo konpositiboa polito konbinatuz.

Gaur egun Falkutatea zabaltzen dihardute.



OTROS EDIFICIOS DE INTERES

16 COLEGIO SALESIANO
Avda. L. Aguirre
C. Emiliano Amann
1920



En este proyecto aplica Amann una composición en tridente, similar a la de la Universidad Comercial (D3), situando la capilla en el eje central y convirtiendo en patios abiertos los espacios generados por los cuerpos de la edificación.

Proiektu honetan Amannek hiruhortz itxurako konposizioa ezarri zuen, Unibertsitate Komertzialean (D3) moldatutakoaren antzekoa, kapera erdiko ardatzean lekutuz eta eraikinaren gorputzen artean sortutako espazioak patio ireki bihurtuz.

17 GUARDERIA. ANTIGUO PARVULARIO DEL COLEGIO ALEMAN
Avda. Lehendakari Aguirre
Estanislao Segurola - T. Schocken
1934



Esta obra, proyectada y construida como parvulario para el Colegio Alemán, se configura con dos cuerpos dispuestos en L en torno a un patio o jardín. Los espacios interiores se plantean para un uso versátil mediante una distribución poco rígida y fácilmente adaptable a distintas necesidades o circunstancias.

Obra hau, Ikastetxe Alemanerako parbulario gisa egindakoa, L itxuran jarritako bi gorputzek osatzen dute, patio edo jolastoki baten inguruan. Barruko espazioak hainbat erabileratarako baliagarri izan daitezen planteiatzen dira, antolaketa erosoa eta une bakoitzeko beharrizanetara eta baldintzetara egokitzeko erraztasuna erakutsiz.

18 VIVIENDAS EN «TORREMADARIAGA»
Jon Arróspide / Luis Power / / Iruña / Avda. Madariaga
Emiliano Amann - Germán Aguirre - Ricardo Bastida
1943



Tras la Guerra Civil, se volvió a considerar el tema de la vivienda social, planteado años atrás de forma ambiciosa en el concurso de Solokoetxe (A22). En este grupo de 595 viviendas se opta por el bloque lineal de lenguaje racionalista, al margen de la tipología de manzana que se estaba imponiendo en Deusto.

Gerrate Zibilaren ondoren berriro landu zen etxebizitza sozialen arazoa, urte batzuk aurrerago Solokoetxeko lehiaketan handinahiz planteiatu zen antzera (A22). 595 etxebizitzako multzo honetan eredu arrazionalistari eusten dion bloke lerrokatua aukeratzen da eraikinentzat, Deustun etxaldeen tipologia nagusitzen zegoen arren.



OTROS EDIFICIOS DE INTERES

19 EDIFICIO DE OFICINAS
Botica Vieja / Rafaela Ibarra
Pedro Ispizua
1943



Conocido popularmente como «El edificio del tigre», Ispizua dota a esta obra de un cierto carácter monumental a través de su remate superior, proporcionando a la cornisa de la Ribera de Deusto una silueta inconfundible.

«Tigrearen eraikintzat» ezagutzen du herriak. Ispizuak obra honi nolabaiteko monumentaltasuna ezarri zion goiko aldeko erremateerekin, Deustuko Erriberari guztiz ezaguna egin den silueta hau gehituz.

20 ESCUELA DE MAGISTERIO
Ramón y Cajal, 118
Alvaro Líbano - F. Navarro Borrás
1959



Esta obra responde a la idea de edificio de grandes dimensiones y poco mantenimiento («block house» o edificio compacto). Las directrices básicas del proyecto estaban ya establecidas por el Ministerio de Educación, aunque los arquitectos introdujeron modificaciones sustanciales.

Neurri handiko eta mantenimendu txikiko eraikinen ereduari eusten dion eraikinetakoa dugu honako hau («block house» edo eraikin batua). Hezkuntza Ministeritzak zehaztu zituen proiektuaren oinarrizko nondik norakoak, nahiz eta arkitektoek aldaketa handiak ezarri.

21 IGLESIA DE SAN FELICISIMO
Plaza de San Felicísimo
Pedro Ispizua
1959



En la última etapa de su trayectoria profesional, Ispizua proyectó esta Iglesia en Deusto, obra rotunda y de marcado carácter expresionista. Una muestra más de su variado e inquieto repertorio arquitectónico.

Bere ibilbide profesionalaren azken aldikadan, Ispizuak Deustuko eliza honen proiektua gauzatu zuen, obra zorrotza eta izaera espresionista markatua duena. Bere errepertorio arkitektoniko zabal eta arduratsuaren beste adibideetako bat da.

8 EDIFICIO INDUSTRIAL «SEAT»

Avda. Lehendakari Aguirre

Alvaro Líbano

1965



Alvaro Líbano, siempre atento a las innovaciones en el campo de la construcción, introduce en Bilbao uno de los primeros «muros-cortina», de procedencia francesa, como cerramiento exterior.

En el edificio, que fue finalista del Premio Asúa de arquitectura de ese año, contrasta la superficie tecnológica de su fachada con el tratamiento expresionista del patio, propiciado éste por el recorrido exterior de las rampas.

Esta obra, actualmente en fase de transformación en centro comercial, supone el inicio de una cadena de edificaciones, en las que destacan los aspectos de indagación constructiva y que tienen en los recintos de oficinas su máximo exponente.

A pocos metros de aquí, José María Chapa, unos años más tarde incorporará un nuevo eslabón a esta cadena con el proyecto para el Centro de Proceso de Datos del BBV (D9).

Alvaro Libanok, eraikuntzaren arloko berrikuntzei beti adi agertzen den arkitektoak, Bilbon lehenengoz horma-gortina bat eraikiko du, jatorriz frantziarra, barneko aldeko itxitura gisa erabiltzeko.

Eraikin honetan, urte hartako Asua Sarian finalista izandakoan, kontrastean jartzen dira fatxadako azalera teknologikoa eta patioko trataera espresionista, kanpotiko arrapalek honetan zeresan handia dutelarik.

Obra hau, gaur egun merkatalgune bihurtzeko eraldaketak bizi dituena, eraikuntza mailako ikerlanen arloan nabarmenduko den ondorengo eraikin-katearen aitzindari da, honelako eraikinak gehien bat bulegotarako egingo direlarik.

Metro batzuk harago, Jose Maria Chapak, urte batzuk beranduago kate honi beste eraikin bat gehituko dio, BBVren Datuen Prozesurako Zentrua (D9) hain zuzen.

9 CENTRO DE PROCESO DE DATOS. BBV

Avda. Lehendakari Aguirre / Benidorm

José María Chapa

1970



Obra madura y refinada de José María Chapa, que recoge el testigo lanzado por Alvaro Líbano en el Edificio «Seat» (D8) unos años antes. Chapa, que había comenzado su andadura profesional de la mano de su tío Manuel I. Galíndez, colaborando con él en los proyectos del rascacielos de Bailén (A23) y de la Naviera Aznar (B43), y que intervino también en los años setenta en el proyecto de la sede central del Banco de Vizcaya. BBV (B54), realiza aquí una propuesta de volúmenes claros, reforzados con una incorporación discreta del «muro-cortina», que no llega a ser, en ningún momento, protagonista absoluto.

Todo ello unido a su cromatismo neutro, hace que ésta sea una construcción «silenciosa», contenida, sin renunciar a una vocación tecnológica, muy presente en esta generación de arquitectos.

Con esta obra se marca el último vértice de un cuadrilátero que, sin salir del distrito de Deusto, recoge cuatro de las obras más significativas de esta década (años sesenta) realizadas por arquitectos bilbainos: Facultad de Sarriko, 1962 (D6); Viviendas Municipales, 1964 (D7); Edificio Industrial «Seat», 1965 (D8) y Centro de Proceso de Datos del BBV (D9).

Jose Maria Chaparen obra landu eta bikaina da, Alvaro Libanok «Seat» Eraikinarekin (D8) urte batzuk lehenago proposatutako testigua hartzen duena. Chapak, osaba zuen Manuel I. Galindezekin hasi zuenak bere ibilbide profesionala, honen lankide izanik Bailengo etxeorratzen (A23) proiektuan eta Aznar Untzidunarenean (B41), hirurogeita hamargarreneko hamarkadan Banco de Vizcaya-BBVaren (B54) egoitza nagusiaren proiektuan ere parte hartu zuelarik, honako honetan bolumen argiko proposamen bat egiten du, horma-gortina xehea erabiliz, eraikinean inolako protagonismorik izan gabe.

Guzti hau kromatismo neutro batekin batera agertzen du eta horrela eraikin «ixila» izan dadila lortzen du, batua, asmo teknologikoari eusten diona, arkitektoen belaunaldi honetan hain kontuan izan ohi duten ezaugarria berau.

Obra honekin lauki baten azken ertza betetzen da, Deustuko barrutitik irten gabe hamarkada honetan (hirurogeigarreneko hamarkadan) arkitekto bilbotarrek egindako lau obrarik esanguratsuenetakoak barne hartzen dituena: Sarrikoko Fakultatea, 1962 (D6); Udal Etxebizitzak, 1964 (D7); «Seat» Eraikin Industriala, 1965 (D8) eta BBVren Datuen Prozesu Zentrua (D9).

7 VIVIENDAS MUNICIPALES

Larrako Torre / Islas Canarias

Rufino Basáñez - Esteban Argárate - Julián Larrea

1964



Treinta años después de que C. Emiliano Amann realizara su propuesta en Solokoetxe (A22), un nuevo destello de cultura arquitectónica en el campo de la vivienda social resplandece en Bilbao.

Tres jóvenes arquitectos, a través de un concurso convocado por el Ayuntamiento, son capaces de reinterpretar la experiencia de Le Corbusier en Marsella («L'Unité d'Habitation») e introducir en el anodino panorama de la vivienda en Bilbao, fruto de la especulación, una obra tan innovadora como perturbadora e incomprendida.

El proyecto recoge fielmente algunos de los conceptos introducidos por el arquitecto suizo: composición volumétrica, disposición de viviendas en duplex, tratamientos superficiales, etc., incorporando, asimismo, un nuevo lenguaje racionalista mediante la expresión casi brutalista de la propia estructura, y de esa potente caja de escaleras. El proyecto también introduce modificaciones en cuanto a la disposición del pasillo o galería de distribución, con respecto al de Marsella, y no descuida la resolución espacial y urbanística del conjunto, mediante la implantación de los tres bloques.

En definitiva, una obra que, aún con ciertas ambigüedades propias de su carácter experimental, marca un paréntesis en la producción arquitectónica en la ciudad. La historia se repite y esta enriquecedora propuesta no goza de continuidad alguna. Pero la figura del arquitecto Rufino Basáñez –fallecido recientemente– comienza a destacar como una de las cabezas visibles de la nueva generación bilbaina.

C. Emiliano Amannek Solokoetxerako (A22) bere proposamena egin eta hiru urte beranduago, etxebizitza sozialak eraikitzeko kultura arkitektonikoari bigarren bultzakada bat emango zaio Bilbon.

Hiru arkitekto gazte, Udalak eratutako lehiaketa batean, Le Corbusier-ek Marsellan egindako esperientzia («L'Unité d'Habitation») berrinterpretatzeko gauza izango dira eta etxebizitzaren arloan Bilbok erakusten duen egoera motelean, espekulazioaren eraginez, honako obra apurtzaile eta hain ondo ulertu izan ez den hau gauzatuko dute.

Proiektuan arkitekto suitzarrak asmatutako zenbait kontzeptu fideltasun osoz biltzen dira: konposizio bolumetrikoa, etxebizitza duplexak, azaleren trataera, e.a., era berean, hizkuntza arrazionalari bidea emanez, egituraren beraren adierazkortasunaz baliatuz eta eskailarape itzel batekin nabarmenduz. Proiektuak zenbait aldaketa ere badakartza Marsellakoaren aldean, pasiloen edo galeria banatzailearen antolaketari dagokionez, baina ez du multzoaren konponbide espaziala eta urbanistikoa apurtzen, hiru blokeak ezartzean.

Azken batean, bere izaera esperimentalagatiko anbiguitate batzuk izan ezik, uriko produkzio arkitektonikoan aparteko obra bat izango da. Historia errepikatu egiten da baina proposamen aberats honek ez du inolako jarraikortasunik. Dena den, Rufino Basañez arkitektoaren irudia –oraintsu hil bada ere– Bilboko belaunaldi berrien artean gailentzen hasi da.



PLANTA TIPO DUPLEX / *DUPLEX ERAKO SOLAIRUA*



5 GRUPO «SAN IGNACIO DE LOYOLA»

San Ignacio

Hilario Imaz - Germán Aguirre - Luis Lorenzo Blanc

1945



Se trata, sin duda, del proyecto de mayor envergadura planteado para la ciudad en la época de postguerra, en el campo de las viviendas populares. Se ubica sobre una vega de caseríos y huertas, suponiendo una auténtica extensión de la ciudad a lo largo de la margen derecha de la Ría. Uno de los arquitectos redactores, Germán Aguirre, había participado dos años antes en el proyecto del grupo de viviendas de Torremadariaga (D18) que, junto con éste de San Ignacio, puede ser considerado como heredero lejano de los ambiciosos proyectos presentados al concurso de Solokoetxe (A22).

En el grupo de San Ignacio destaca, por encima de las aportaciones tipológicas y de la relativa monotonía de su arquitectura, el trazado del conjunto y su calidad urbana. Bajo la apariencia de un esquema en cuadrícula se desarrollan distintos modelos edificatorios: manzana cerrada, bloque lineal, bloque en U, etc, combinados con una generosa reserva de espacios libres, plazas y zonas verdes vinculados directamente a las viviendas. Todo ello a través de una escala moderada y una formalización sobria, manteniendo aún intactas hoy en día sus cualidades espaciales.

Zalantzarik gabe, gerraostean hirian herritarrentzako etxebizitzen arloan planteiatutako egitamurik handiena da. Baserri eta ortuz betetako ibar batean lekutzen da, hiria Itsasadarraren eskuinaldean zehar hedatzeko aukera eskainiz. Egitamua idatzi zuten arkitektoetako batek, German Agirrek, bi urte aurrerago Torremadariaga etxebizitza multzoaren (D18) proiektuan hartu zuen parte, San Inazioko honekin batera Solokoetxerako (A22) lehiaketan aurkeztutako handinahizko proiektuen oinordekotzat jo daitekeelarik.

San Inazioko multzo honetan, aportazio tipologikoen eta arkitekturaren monotoniaren gainetik, multzoaren trazadura eta kalitate urbanoa dira ezaugarririk deigarrienak. Koadrikulan egituratutako eskema baten itxura izanik, eraikin desberdinak altxatzen dira bertan: etxalde itxiak, lerrokatutako blokeak, U itxurako blokeak, e.a., espazio irekiak, plazak eta berdeguneak tartekatuz, berauek etxebizitzekiko erabateko lotura dutelarik. Guzti hau eskala moderatua zainduz eta formalizazio latza gordez, gaur egun oraindik beraien ezaugarri espazialak jatorrizkoak direlarik.



PLANTAS TIPO / EREDUZKO *SOLAIRUAK*

